

## **TOKIKO EKINTZAIETZA-PROIEKTUEN BARRUAN ENPRESA-JARDUERA BERRIAK MARTXAN JARTZERA BIDERATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO PROZEDURA ARAUTZEKO OINARRIAK**

### **1. ARAUDI ERREGULATZAILEA**

Oinarri hauen babes diren araudi eta xedapenak honakoak dira:

- 2013ko urriaren 17ko ebazpena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez argitaratzen da tokiko ekintzailtza-proiektuen baitan enpresa-idea berriak sustatzen dituzten pertsonentzako laguntzen deialdia ( 13/10/18ko EHAA).

-. Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (03/11/18ko BOE).

-. Ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzen Lege Orokorrari dagokion Erregelamendua onartzen duena (06/07/25eko BOE).

-. Leioako Udalak ematen dituen diru-laguntzak arautzeko oinarriak onartzen dituen ordenantza orokorra. (13/02/11ko BAO).

.- 2.028. Alkatetza Dekretua (13/10/28)

### **2. XEDEA**

Negozio-idea zehatz bat duten eta tokiko ekintzailtza-proiektuetan parte hartzen duten pertsona ekintzaileen enpresa-proiektu berriak sustatzeko emango diren diru-laguntzen oinarriak eta arauak ezartzea. Diru-laguntza horiei esker, ekintzaileek enpresa-jarduera martxan jartzeko beharrezko ekintzetan soilik aritzeko aukera izango dute.

### **3. PERSONAS BENEFICIARIAS**

1.- Deialdi honetan jasotako laguntzen onuradun izan ahalko dira baldintza hauek betetzen dituzten pertsona ekintzaileak:

a) EAEn bizi dira.

b) Langabeak dira eta enplegu-eskatzailer gisa izena emanda daude Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan.

c) Enpresa-bideragarritasunaren plan bat edukitzea enpresa edo negozio berri bat martxan jartzeko. Leioako Behargintzak baliozkotzat jo beharko du plan hori, laguntza-fasean.

d) Leioako Behargintzak enpresa bat sortzeko antolatzen duen aholkularitza- eta laguntza-prozesu batean parte hartzea. Baldintza hori dagokion momentuan eskatuko da.

Halaber, oinarri hauek onartzen diren datan, Leioako udalerrian erroldatuta egotea eskatzen da. Baldintza hau ez da ezinbestekoa izango aurreikusten den aktibitatearen kokapena Leioan ezartzen bada.

2.- Laguntza hauen onuradun izateko, sustatzaileek konpromiso hauek hartu beharko dituzte:

- a) Enpresa edo negozioa martxan jartzen soilik aritzea.
- b) Enpresa edo negozioa jartzeko egiten diren aholkularitza- eta laguntza-ekintza guztietara joatea. Leioako Behargintzak zehaztuko ditu ekintza horiek.
- c) Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta ematea, negozioa martxan jartzeko tutoretza- eta laguntza-prozesua amaitzen denetik 3 hilabeteko epean gehienez ere.

Pertsona ekintzaileek ez badute ekonomia-jardueren gaineko zergan alta ematen adierazitako epean, diru-laguntzaren bigarren ordainketa jasotzeko eskubidea galduko dute.

3.- Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza eta laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta dauden pertsona fisikoek ezin izango dituzte deialdi honetan jasotako laguntzak eskuratu, ez eta hartarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenek ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, otsailaren 18ko 4/2005 Legeari, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakoari, jarraituz.

4.- Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik bideratzen ari den itzultzeko edo zigortzeko prozedura oro amaitzea ezinbestekoa izango da onuradunei laguntzak eta diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko.

#### **4. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK**

Deialdi honetan adierazitako diru-laguntza jasotzeko, pertsona sustatzaileek deialdi honetako 4. artikuluan adierazitako baldintzak bete beharko dituzte eta Leioako Behargintzaren laguntza edo tutoretza jaso beharko dute, enpresa edo negozio-proiektu bat martxan jartzeko behar diren ekintzak garatzeko.

Deialdi honen babespean egiten eta aztertzen diren jarduerak, gutxienez, hiru hilabete iraungo dute, eta 2013ko azaroaren 30a baino lehenago hasi beharko dute, ezinbestean.

#### **5. DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA**

Oinari hauen 3. ataleko baldintzak betetzen dituen onuradun bakoitzari, gehienez, 1.500,00 euroko diru-laguntza emango zaio.

Halaber, proiektu bakoitzeko gehienezko diru-laguntza 1.500,00 eurokoa izango da, proiektuak zenbat sustatzaile dituen aintzat hartu gabe.

#### **6. ESKABIDEAK TRAMITATZEA**

1.- Oinarri hauetan jasotako laguntza eskuratzeko eskabidea aurkeztu. Leioako Udalaren eta Leioako Behargintzaren web orrietan eskuragarri dagoen ([www.leioa.net](http://www.leioa.net) eta [www.leioako-behargintza.net](http://www.leioako-behargintza.net)) eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko da.

2.- Diru-laguntzaren eskabidea behar bezala beteta aurkeztuko da, beharrezkoa den dokumentazioarekin batera, Udal Erregistro Nagusian (Elexalde 1 helbidean) edo Leioako Behargintzan (Mendibile 3 helbidean). Bulego bien arreta ordutegia astelehenetik ostiralera bitartekoa da, 8:30etik 14:30era. Dokumentazioa aurkezteko beste modu bat azaroaren 26ko 30/1992 Legeko, Administrazio Publikoen Erregimen Juridiko eta Administrazio Prozedura Komuneko, 38.4 artikulua aurreikusten duena da.

3.- Eskabidearekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- a) Diru-laguntza hauek arautzeko den 2013ko urriaren 17ko Ebazpenaren III. Eranskinean proposatzen den Lanbideren eredu ofiziala, [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net), Leioako Udalaren web gune eta Leioako Behargintzaren web gunean aurki daitekeena.
- b) NAN fotokopia, edo bere kasuan, besteen kontura lan egiteko aukera bermatzen duen identifikazio ziurtagiria.
- c) Errolda agiria, leioaztarren kasuan izan ezik, ofizioz ziurtatuko baita.

- d) Eskaera egiten den unean langabezia egoera ziurtatzen duen agiria. Hori ziurtatzeko, Lanbidek egiten duen “Inskripzio epealdi eta lan-egoeraren txostena” aurkeztu behar da.
- e) Enpresa-bideragarritasunaren plan bat edukitzea enpresa edo negozio berri bat martxan jartzeko.

Interesdunak ez badu eskabidea behar bezala betetzen edo harekin batera ez baditu bidaltzen nahitaezko dokumentu guztiak, hauxe eskatuko diogu: hamar lan-eguneko epean hutsegitea zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko. Halaber, jakinaraziko diogu, hori egin ezean, eskabidea ezetsi egingo dugula eta horrek azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, Herri Administrazioaren Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 71. artikuluan ezarritako ondorioak izango dituela.

## **7. AURKEZTEKO EPEA**

Eskabideak oinarri arautzaile hauek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira. Epea, edozein kasutan, 2013ko azaroaren 25ean bukatuko da.

Eskabidea Udal Erregistro Nagusian edo Leioako Behargintzan fisikoki aurkeztea ez den beste modu batera aurkezten baldin badu interesdunak, eskabide hori behar bezala zigilatuta bidali beharko du aurreko ahapaldian aipatutako epea amaitu baino lehen, fax bidez (944 022 541) edo e-mail bidez ([behargintza@leioa.net](mailto:behargintza@leioa.net)).

## **8. EMAKIDA PROZEDURA**

1.- Publizitate, konpetentzia eta objektibotasun irizpideei so eginik, oinarri hauetan araututako diru-laguntzak eskabidean aurkeztutako negozio-planaren balorazioaren arabera emango dira.

Balorzio hori Leioako Behargintzako eta beste Herri Administrazio bateko teknikariek egingo dute.

15 puntuko gehienezko balorazioaren ganean, honako aspektu hauek baloratuko dira, eta aspektu bakoitzari dagokion gehienezko balorazioa ere zehazten da:

- a) Berrikuntza: 4 puntu
- b) Inbertsioa eta aurreikusitako finantzazioa: 3 puntu
- c) Sortzen ari den aktibitate sektorea: 3 puntu
- d) Aurreikusitako kontratazioa: 3 puntu
- e) Talde eragilea: 2 puntu

Proiektu batek baino gehiagok azken balorazio berbera lortuko balute, a) atalean punturik gehien daukana lehenetsiko da. Berdinketa ez balitz horrela desegingo, b) atalean punturik gehien duena lehenetsiko da. Horrela egingo da, segidan, berdinketa desegin arte.

Diru-laguntza hauek emango zaizkie proiektuetan puntuaziorik altuena erdiesten duten pertsoneri. Aurreko ahapaldian ezarritako baremoaren arabera, onuradun kopurua Lanbidek Leioako Udalari esleitzen dion aurrekontuaren menpe geratuko da, Leioako Udala entitate laguntzailea baita, oinarri hauen 1. epigrafean aipatzen den 2013ko urriaren 17ko Ebazpenaren arabera.

2.- Diru-laguntzen emakida Alkatetza Dekretu bidez ebatziko da behin zozketa eginda.

3.- Ebazpenak ebatzi eta jakinarazteko gehienezko epea hiru hilabetekoa da, eskabidea aurkeztzen den egunetik zenbatzen hasita. Epea igarota, ez badago berariazko ebazpenik, diru-laguntza eskabidea gaitzetsi dela ulertuko da.

4.- Behin prozedura ebatzita, interesdunek emakidaren ebazpenari buruzko berariazko jakinarazpen indibiduala jasoko dute.

## **9. DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEKO MODUA**

Leioako Udalak honela ordainduko die diru laguntzen onuradunei:

- Emandako diru-laguntzaren % 50 ordainduko diete lehendabizi, enpresa-proiektua martxan jartzeko aholkularitza-prozesua hasi eta bideragarritasun-plana adostean.

- Bigarren ordainketa bat egingo da, gainerako % 50arekin, ekonomia-jardueren gaineko zergan alta eman ondoren. Horretarako, laguntza-prozesua amaitzen denetik kontaktzen hasi eta hiru hilabeteko epean gehienez ere, ekonomia-jardueren gaineko zergan alta eman izanaren kopia aurkeztuko zaio Leioako Behargintzari, egindako jarduerak zehazten dituen azken memoria batekin batera. Leioako Behargintzak baliozkotzat jo beharko du memoria hori, eta memoriaren edukiak lan-planaren eta lortutako emaitzen jarraipena egiteko aukera eman beharko du.

Zenbateko horien diru-sarrera egiteko, esleipendunek Hirugarrenei Alta Emateko Agiria bete eta aurkeztu beharko dute.

## **10. ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

Oro har, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutakoaren, 50.2 artikuluan jasotako betebeharrak bete behar dituzte onuradunek, eta batik bat, betebehar hauek:

-Justifikatu behar dute laguntza emateko eta baliatzeko bide eman duten betebeharrak eta baldintzak betetzen dituztela eta jarduera egiten dutela.

-Egiaztapen- eta kontrol-jardueren mende jarri behar dute. Erakunde hauek egingo dituzte jarduera horiek: erakunde kolaboratzaileak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Ogasun eta Finantza Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak.

-Beste edozein administrazio publikok edo erakunde publikok edo pribatuk laguntzaren bat edo diru-laguntzaren bat ematen badie helburu bererako, horren berri eman beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

-Laguntza ematerakoan kontuan izan zen egoera objektibo edo subjektiboren bat aldatuz gero, horren berri eman beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

-Gertaeraren batek funtsezko eran eragiten badio diruz lagundutako jardueren xedeari edo izaerari, horren berri eman beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

-Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek, edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan itzultzeko edo zigortzeko prozeduraren bat hasi bada eta oraindik bideratzen ari bada, horren berri eman beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.

## **11. LAGUNTZA ALDATZEA**

Oinarri hauetan jasotako laguntza emateko kontuan izan den edozein baldintza aldatzeak emandako laguntza aldatzea ekar dezake berekin, baldin eta onuradunak ezarritako gutxieneko betebeharrak betetzen baditu. Baldintza horiek aldatzeak emandako laguntzaren gutzizkoa edo zati bat itzultzea badu ondorio, dagokion itzultze-prozedurari ekingo diogu.

## **12. BESTE DIRU-LAGUNTZA EDO LAGUNTZA BATZUK ALDI BEREAN JASOTZEA**

Deialdi honetan jasotako laguntza eskuratuz gero, onuradunek ezingo dute jaso beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu eta helburu bererako ematen duten ezin laguntza, diru-laguntza edo diru-sarrera.

## **13. EZ BETETZEA ETA EMANDAKO LAGUNTZAK ITZULTZEAS**

1.- Oinarri hauetan jasotako laguntzen onuradun izango diren pertsonen laguntza-prozesua behar baino lehenago uzten badute, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan jasotako kasuren batean badaude edo deialdi honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpen bidez adieraziko die, hala badagokio, jasotako zenbatekoen eta laguntza eman zen unetik bertatik sortutako legezko interesen guztizkoa edo zati bat itzuli behar dutela. Horretaz gainera, egoki diren gainerako ekintzak bideratu ahal izango ditugu, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargura ematen diren diru-laguntzen bermeen eta itzultzeen araubide orokorra).

Edozein arrazoi dela-eta onuradunek laguntza- edota tutoretza-prozesua behar baino lehenago uzten badute, hauxe izango da emandako diru-laguntza itzultzeko araubidea:

- Prozesua hasi eta hilabete baino lehenago utziz gero, onuradunek jasotako diru-laguntza osoa itzuli beharko dute.
- Prozesua hasi eta bigarren hilabetea amaitu aurretik utziz gero, onuradunek 500 euro itzuli beharko dute.
- Prozesua hasi eta hirugarren hilabetean, hots, laguntza- edota tutoretza-prozesua amaitu aurretik, utziz gero, onuradunek 250 euro itzuli beharko dute.

2.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak hasiko du diru-laguntza itzultzeko prozedura, eta horren berri emango dio onuradunari. Zehazki, ez-betetzearen zergatiak jakinaraziko dizkio, eta eskatuko dio hamabost eguneko epean egoki deritзон alegazioak edo frogagiriak aurkezteko.

3.- Alegazioak egiteko epearen barruan alegaziorik egiten ez bada edo alegazioak ezesten badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendariak ebazpena emango du. Diru-laguntza itzultzeko prozedura ebazteko gehienezko epea 12 hilekoa izango da.

4.- Ebazpenak ezartzen badu ez-betetzea gertatu dela eta interesdunak eskubidea galdu duela diru-laguntzaren guztizkoa edo zati bat jasotzeko, interesdunak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkio dagozkion zenbatekoak, gehienez ere bi hileko epean, ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Epe hori borondatezko epeztat joko dugu.

5.- Interesdunek dirua borondatezko epean itzultzen ez badute, premiamendu-bideaz itzularazteko izapideei ekingo diegu.

#### **14. DATU PERTSONALEN BABESA**

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetze aldera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere jabetzako fitxategi batean sartuko ditu deialdi honetan araututako laguntzen eskabideetan jasotako datu pertsonalak. Fitxategi horri «Enplegu eta prestakuntzarako diru-laguntzak» deritzo, eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak 2012ko urriaren 10eko emandako aginduaren bidez dago arautua (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren datu pertsonalen fitxategiak arautzen ditu agindu horrek).

Halaber, interesdunek eskubidea dute, legeak ezartzen duenaren arabera, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta haien aurka egiteko. Horretarako, idazki bat bidali behar dute hori adierazteko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).